

## Donostiako Udala / Ayuntamiento de San Sebastián Albisteak

Home :: Albisteak :: **Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna.**

### Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna.

**mintzodromoa, kontzertuak, hitzaldiak, antzerkia, pelikulak,...**

Abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Egunari begira, urriaren bukaeratik abenduaren 10era bitartean, **bereziki gazteei zuzendutako programazioa** atondu dute elkarlanean Euskararen Udala Patronatuak, Auzoak eta Herriarren Partaidetza zuzendaritzak, Donostia 2016k, Donostia Kulturak eta beste erakunde eta hiriko eragile ugariak. Berrogeita hamar erakunde eta elkarte baino gehiago aritu dira elkarlanean euskarazko kultur egitarau zabal hau prestatzen.



#### Gazteentzako egitarau anitza

60 kultur ekintzatik gora antolatuta dira, batzuk bereziki antolatutakoak dira eta, beste batzuk, Donostiak urtean zehar duen kultur eskaintzaren barruan kokatzen dira. Musika kontzertuez gain (Bide Ertzean, Esne Beltza, Zea Mays, Kepa Junkera, Ttakun ttakun txalaparta ikuskizuna...), hitzaldiak (teknologia berriak, historia edota gizarte gaiekin lotura dutenak) bertso saioak, antzezlanak (talde profesionalak zein gazteez osaturiko talde amateurak), euskarazko filmak (euskarazko bertsoan zein azpidatuta) edota literaturarekin loturiko jarduerak eskainiko dira.

Horez gain, euskarazko bisita gidatuak eskainiko dira Artikutzara, Chillida Lekura eta Kursaal kuboan jami berri den euskal pilotari buruzko "Jai Alai. Euskal pilotaren edertia" izeneko erakusketa ikusteko.

#### Auzoak eta auzotarrak protagonistak

Auzoetan ere Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatuko dira. Auzotarrak eta auzo bakoitzeko eragileak zein elkarteak ari dira auzoko euskararen eguna antolatzen.

Horela, Intxaurren azaroaren 26an ospatuko dute Intxaurrenoko Euskararen Eguna, Antiguan, Parte Zaharrean, Grosen eta Egian azaroaren 27an eta Loiolan abenduaren 10ean. Amaran berriz, hilabetean zehar banatuko dituzte euskarazko eta euskararen aldeko ekitaldiak.

#### Abenduaren 3an ere hamaika ekintza

Abenduaren 3rako egitarau trinkoa aurreikusita dago. 2009ko Euskararen Egunean hain arrakastatsua izan zen Mintzodromoa antolatuko da Artess Café-an (Zuloaga plazan) goiz eta arratsaldean. Arratsaldean Boulevardean jarriko den karpan euskarazko kultur ekintzak eta talde euskaldunen kontzertuak antolatuko dira arratsaldeko 18:30etatik aurrera. Iluntzeko

20:00etan, Antzoki Zaharrean, oso gutxitan ikus daitekeen saioa egongo da: bi bertsolariak, Kubako bi repentistek eta Uruguaiako bi payadorek inprobisazio saioa eskainiko dute. Eta bukatzeko, Gaztezulo bideo lehiaketako sari-banaketa eta festa izango da gaueko 22:00etatik aurrera Doka kafe antzokian.

2010/10/28-an argitaratua

 Albiste zerrenda